


SOLDADU FRANTSSES BAT LEZON

1720ko abenduaren 29an, arratsaldeko bostetan, Donostia harturik zeukan armada frantseseko soldadu bat igaro zen Gaintxurizketako Gurutzearen ondotik, hain zuzen ere Pierre Minon, Languedoc-eko erregimentuko Deville kapitainaren morroia. Gorputz sendoko gizon pin-



pirina zen, kapela eta guzti dotore-dotore jantzia, eta ilea sorbaldaraino iristen zitzaiola. Hemeretzi urte zituen. Biarnoko Orthez hiritik zetorren, Hondarribiko bidetik, eta Turenako Zaldunaren gutun bat zekarren aldean.

Maldan behera abiatu zen Saroizar baseri aldera, agudo, urte sasoi hartan edozein bidekari bakartiren gusturako egunak motzegiak baitziren, batik batik Gaintxurizketako burua bezalako leku basatiak zeharkatzerakoan.

Bapatean, erreka zokora iritsi orduko, ustegabeño hiru lagunekin aurrez-aurre topo egin zuen. Haietako bi gazteak baziren ere, hogeita hiruren bat urtekoak, hirugarrena zaharra eta kaska-zuria zen. Mozorroturik eta aiztoez armaturik zeuden. Bide erdian geldiarazi zuten, eta iheskaria zen galdetu. Berak, soldadu-lizentzia erakutsiz, ezetz. Agiria, ordea, eskutik kendu eta txikitu egin zioten. Ondoren, bide ertzetik hogeita hamar urratsetara urrunarazi bezain azkar, gainean zeramatzan diru, jantzi eta zizpoletak ebatsi zizkioten ⁽¹⁾. Erabat biluzik geratu zen, eskumuturrak bizkar atzean oihal puska batez lotuta.

Egoera hartan, lapurrak urrutian ezkutatu zirenean, berriro bidera hurbildu zen, hotzak ia akabaturik. Halako batean Lezo aldetik norbait zetorrela somatu zuen. Oihuka hasi zen laguntza eske. Hiru hondarribiar agertu ziren zaldi gainean: Meltxor Gorostiolakoa, Migel Ansotegikoa eta Manuel Diez Jalon. Berehala askatu zuten, baina azalpenetan luzatu gabe korrika joan zen Lezorantz, satan bat atzetik balu bezala.

Zubitxo erreka igaro eta herrira iritsi zenerako zortziak inguru ziren. Ilunpean aterpe bila aritu zen ⁽²⁾, ahalkez beterik. Alabaina, orok ikusi zuen arren, etxeetako sotoak itxita aurkitu zituen. Frantsesez mintzo zen gizajo arlote irrigarri hari inork ez zion aterik zabaldu nahi, arrotza izateaz gain larrugorritan baitzetorren.

Azkenik, itxura hartan noraezean zebilela, negarrez, kale bazterrean gizonezko bat antzeman zuen kriseilua eskutan. Joseph Arpidekoa zen, Lezoko apaiza. Josephek bere etxera eramane zuen, pausalekua izan zezan, eta gorputza zertaz estali eskaini zion, atorra, maripulisa, galtza beltzak eta zapata zahar batzuk, alegia. Horrez gainera bost sos eman zizkion.

Hurrengo goizean Lezoko kontseilu-buru edo kapitaina Gaintxurizketara joan zen lapurreta gertatu zeneko alderdia miatzeko asmoz. Berarekin batera izan ziren bikarioa, bi auzo, kontseiluko beste lagun bat eta Pierre Minon bera ere. Turenako Zalduaren eskutitza aurkitu zuten, eta puskatutako lizentzia; ez, ordea, lapurren nor-tasunari buruzko aztarna edo argibiderik.

Egun batzuk geroago Deville kapitainak, Minon soldaduaren izenean, Hondarribiko hiria auzitara eramane zuen, gertakaria hango barrutian agitu zela eta 192 libera eskatu zituen kaltearen ordainetan.

Bere aldetik, hondarribiarren ordezkariak, zama gainetik kendu nahiean, Lezoko unibertsitatea auzitaratu zuen, Lezoko kontseilu-buruak Hondarribiko Justiziari ez ziolako gertatutakoaren berri garaiz eman.

Urte beteren buruan eman zen epaia. Lezoko eta Hondarribiko kontseiluak erantzukizun guztietatik libre geratu ziren, eta Deville eta Minon frantsesei betirako isiltasuna ezarri zitzaion.

ITURRIA

Hondarribiko Udal Agiritegia: E/7/II/26/9.

- (1) Donostiako agintari frantsesek igorritako ziurtagiri baten arabera 192 libera litzateke ebatsitakoaren balioa:

“Une housse et faux foureaux ecarlatte ave un bordé d'argent	36
Une paire de pistoles de maitre garny de vuivre	48
Un habit et veste brun	25
Une culotte ecarlatte	8
3 chemises	15
2 cravattes	4
Un chapeau	4
Une paire de bas	5
14 pieces de 50 s. valent	35
2 piastres en monoye	12”

- (2) 1843an Victor Hugok maisuki adierazi zuen Lezo gauez zeharkatzeak kanpotarrengan sor zezakeen egoneza (ikus: “Fragmento de Les Pyrénées de Victor Hugo”. Donostia, 105-117 or.).

LANDER ZURUTUZA